

## Nafarroako Lehendakariaren aholkularia

### **Hektor Xabier Ruiz Díez**

Bilbon jaio zen 1970ean.

Nafarroan bizi da 1996az geroztik; eta bertan egin du bere ibilbide profesionalaren zatirik handiena, komunikazio estrategikoko eta enpresa-komunikazioko aholkulari gisa. Elektronikako goi-mailako ikasketak egin zituen.

“Funtsak” komunikazio- eta branding-agentzian egin du bere ibilbide profesional gehiena; berak sortu zuen enpresa hori, beste batzuekin batera, eta sormen-zuzendaria izan da orain arte. Enpresa horretan, Foru Komunitateko erakunde, entitate eta alderdi politikoentzako lan egin du, bai eta toki, Estatu eta nazioarteko mailako enpresentzako ere.

Gainera, 2015. urteaz geroztik, LIS Solutions aholkularitza-enpresarekin –Gasteizen eta Alemaniako Ulm hirian ditu egoitzak– kolaboratu du, eta *big datan*, marketinean eta enpresen digitalizazioan espezializatu da.

2017ko maiatzean Nafarroako Lehendakariaren aholkulari izendatu dute.